



ATAZA - ARALAR

PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



Aralarren dagoen ingurumen-arazoetako bat lurraren galera da. Hori dela eta, zenbait pista irekitzeko proiektu batek hautsak harrotu zituen bere garaian. Bilatu horren inguruko informazioa eta ahozko aurkezpena prestatu, gelakideek uler dezaten.

Lanaren nondik norakoak:

- Bakoitzak auzian parte hartu duen pertsona baten rola aukeratu:
 - Proiektuari oniritzia eman dion politikaria.
 - Eguzki talde ekologistako kidea.
 - ENBA, artzain eta abeltzainen elkarteko kidea.
 - Zientzialaria, edafologian eta biologian aditua.
- Bildu informazioa gaiari buruz, kontuan izanda zuei egokitutako rola duen pertsonaren/erakundearen iritzia.
- Zuetako bakoitzak, zuen ikuspuntua defendatzeko eta azaltzeko idatzizko zirriborro txiki bat prestatu.
- Guztion artean egindako idatzizko zirriborroak gutxienez 200 hitz izan behar ditu guztira; erabilitako informazio-iturriak idatzita utzi.
- Zirriborroa ahozko aurkezpenaren aurretik irakasleari erakutsi, lehen zuzenketa egin dezan. Zuzenketak egin ondoren, audioa grabatu ahozko aurkezpenaren aurretik.